



Lagun agurgarria,

NEIKER-eko Ekologia eta Natur Baliabieak Saitetik **“SOILMONTANA - Nekazaritza Ekosistemen Osasun Txartelak: Mendi-larreak eta haran barrenetako lurzoru eta landare biodibertsitatearen kontserbazioa”** Life proiektuko lehen jardunaldi tekniko irekira gonbidatu nahi zaitugu.

Bilera hau datorren azaroaren 3an (zapatua) izango da Zeanuriko Kultura Etxean, goizeko 10:00etan. Proiektuko lehen urte honetan burututako jardueren aurkezpen labur bat egin ondoren, Arimegortako (Zeanuri) artzaintza larreetara igoko gara egin diren lanen adibide batzuk ikusteko. Bertan dohan banatuko ditugu osasun txartelak eta hauen bidez gutariko edozein, gai honetan aditua izan gabe, ekosistemaren osasunaren oinarritzako diagnostiko fidagarri bat egiteko gai garela erakutsiko dugu. Azkenik, Gorbeialdeko abeltzainen gazta dastaketa batez gozatuko dugu.

Bilera honetara, proiektu honen laguntzaile diren administrazio eta instituzio ezberdinetako ordezkariak daude gonbidatuta, besteak beste Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Natur Ondareen Zerbitzua, LORRA Kooperatiba, Orozko eta Zeanuriko abeltzain-elkarteak eta NEIKER, egile den aldetik. Interesatuta egon daitezkeen bestelako erakunde eta norbanakoak ere gonbidatuta daude, Zeanuri eta Orozko aldekoak batez ere.

Zure partehartzea espero dugu. Jakin ezazu, zure esanetara gaudela zalantzaren bat argitu edo gai honen inguruko informazio zabalagoa nahi izango bazenu. Etortzeko asmoa baduzu, eskertuko genizuke aurrez konfirmatzea (info@neiker.net; 94 4034334)

Jaso ezazu gure agurrik beroena,